

ADIMEN ARTIFIZIALAREKIN BATERA LAN-ETORKIZUNA ERAIKIZ

Ikuspegi azterketa, automatizazioaren historia eta langileak babesteko proposamenak



GRADU AMAIERAKO LANA

2023/2024

Ikaslea: Aroa Alejandre García

Tutorea: Xabier Barrutia Etxebarria

Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako Gradua

AURKIBIDEA

SARRERA	2
1. ZENBAIT IKUSPEGI, ETORKIZUN BAT: ADIMEN ARTIFIZIALAREKIKO USTEAK	5
1.1. TEORIA ETA PENTSAMENDU-ESKOLA NAGUSIAK	5
1.1.1. Teknologiarekiko distopikoak	5
1.1.2. Teknologiarekiko utopikoak	5
1.1.3. Teknologiarekiko baikorrak	6
<i>Noah Smith</i>	6
1.1.4. Teoria marxista	8
<i>Evgeny Morozov</i>	9
1.1.5. Ongizatearen ekonomiaren teoria	11
<i>Daron Acemoglu</i>	11
2. ETORKIZUNA MOLDATZEN DUEN IRAGANA	14
2.1. ADIMEN ARTIFIZIALAREN TESTUINGURU HISTORIKOA	14
2.1.1. AAren lehen urratsak eta azken hamarkadetako aurrerapenak	15
2.1.2. Jarduera eta aplikazio modernoak AAren eskutik	17
2.1.3. Etengabeko aurrerapena aro digital berri honetan	18
2.2. AUTOMATIZAZIOAREN BILAKAERA	19
2.2.1. Eten teknologikoa Erdi Aroan	20
2.2.2. Lan-eraldaketa Industria Iraultzan	22
2.2.3. Berrikuntza eta ekitatea XX. mendean	24
2.2.4. Digitalizazioa eta lan-desberdintasuna	27
2.2.5. Egungo erronka eta aukera sozialak	29
3. ADIMEN ARTIFIZIAL INKLUSIBO ETA EKITATIBO BATERAKO ESTRATEGIAK	31
3.1. ETENGABEKO HEZKUNTZA ETA TREBAKUNTZA	32
3.2. ERREGULAZIO ETIKOA ETA PRIBATUTASUNEKOA	34
3.3. BERRIKUNTZA ARDURATSUAREN SUSTAPENA	35
3.4. LAGUNTZA ETA BABES SOZIALEKO POLITIKAK	37
ONDORIOAK	39
BIBLIOGRAFIA	41

GRAFIKOEN AURKIBIDEA

1. grafikoa: Azken 8 hamarkadetako adimen artifizialaren igoera	15
2. grafikoa: Giza errendimenduaren ahaide diren hainbat gaitasuni buruzko AA sistemen proben puntuazioak	16

LABURPENA

Adimen artifiziala (hemendik aurrera AA) aro garaikideko indar eraldatzaileenetako bat bezala azaleratu da, ekoizpen-metodoetatik hasi eta bizi eta lan egiten dugun eraraino iraultza ekarriko duela aginduz. Hala ere, promesa horrekin batera lanaren etorkizunari eta, oro har, gizarteari buruzko erronka eta galdera erabakigarriak datoz. Lan hau AAren ondorioei buruzko ikuspegietan barneratzen da, baita ondorioei modu eraginkor eta etikoan aurre egiteko moduan ere.

Adimen artifiziala aurrerapen teknologikoa ez ezik, erronka sozioekonomikoa ere bada, zuhurtziaz eta ikusmenez aurre egin behar dioguna. Egoera azertu ondoren, proposamen zehatzen bidez, lan honek AA guztiontzako indar positibo eta eraldatzailea izango den etorkizun batean lagundu nahi du.

HITZ-GAKOAK

Adimen Artifiziala, automatizazioa, desberdintasuna, erregulazioa, etorkizuna, historia, lana, ondorioak, proposamenak eta teknologia.

SARRERA

Lan honen helburua da AAri eta haren inplikazioei buruzko perspektibak aztertzea, teknologiak enpleguan izan duen eragin historikoa aztertzea eta erronka horiek kudeatzeko estrategiak proposatzea. Hori egitean, galdera honi erantzun nahi diogu: Nola ziurta dezakegu AA guztion onerako indar bihurtzen dela, eta ez desberdintasunaren eta langabeziaren iturri?

Adimen artifiziala gure eguneroko bizitzan nonahiko elementu gisa azaleratu da, eta lan-eremua nahiz eremu pertsonala eraldatu ditu. Lan eremuan, AAk zeregin errepikakorrak automatizatzen ditu eta eraginkortasun operatiboa hobetzen du; arlo pertsonalean, berriz,

gure eguneroko zereginetan integratzen da, laguntzaile birtualen eta aplikazio adimendunen bidez.

AAren garapenean eta erabileran erregulazioak duen garrantzia ezin da gutxietsi. Funtsezkoa da lege-esparruak eta esparru etikoak ezartzea gehiegikeriak saihesteko eta aurrerapen teknologikoak gizarte osoari mesede egingo diola bermatzeko. Erregulazio egokirik gabe, desberdintasuna areagotu eta lan-ingurune zapaltzailea sor dezakeen gehiegizko automatizazioaren arriskua dugu.

Gaur egun hain eguneratuta dagoen gai hau aukeratzeko arrazoia lan-etorkizunean dudak interesa eta adimen artifizialak bertan izan ditzakeen inplikazioak dira. Kezka hori bereziki garrantzitsua da nire ikuspegitik, oraindik lan-merkatuan erabat sartu ez den ikasle gisa, AAk etorkizunean enplegu-aukerei nola eragingo dien jakiteko. Lanaren hasierako ideia azken hamarkadan adimen artifizialak utzitako langabe kopuruaren azterketa kuantitatiboa egitea zen. Hala ere, aro digital berri honen lehen etapetan egonik, lan kuantitatibo bat egitea, sortutako langabeziaren ondorioetan bakarrik zentratuz, ezinezkoa zen. Horregatik, norabidea aldatzea erabaki nuen, adimen artifizialak utziko dituen langabe kopuru hori murrizteko ekintzak proposatuz.

Lan honen garapena ikerketan oinarritu da, behaketa eta bilaketa bibliografiko eta dokumentala barne hartzen dituen, liburuetatik hasiz, haien kritikak, artikulak akademiko ugari, erakundeen txostenak eta lineako argitalpenak aztertzeraino, landutako gaien ikuspegi osoa eta zehatza lortzeko.

Laburbilduz, lan honek 1. puntuari buruzko hainbat ikuspuntu aztertzen ditu. Ikuspuntuak garatzeko, 5 teoria nagusietan sailkatu dira, kritikoenetatik hasi eta teknologian konfiantza gehien dutenetaraino. Ikuspuntu horiek are gehiago garatzeko, 3 egile aukeratu dira, aipatutako ikuspuntuak ikuspegi pertsonalago batetik garatzeko, haien liburuak, artikulak idatziak eta abar aztertuz.

Historiari dagokionez, adimen artifizialaren hastapenak ezagutu behar ditugu, zer ikertzen ari garen jakiteko. Beraz, AA nola garatzen hasi zen kontatzen da, bere zereginen garapena

urteetan zehar aztertuz. 2. puntu honetan, aipatutako eskolen artean aukeraketa egin da, egile biren bibliografian sakonduz: Daron Acemoglu eta Simon Johnson. Egile hauen lankideak asko dira; David Autor, lan merkatuan aditua dena, besteak beste. Aditu hauen ikuspegia bat dator nire teknologiaren gaineko ikuspegi pertsonalarekin; izan ere, ikuspegi instituzionalista eta historikoa hartzen dute ardatz moduan, teknologiaren ibilbidean aldagai soziologikoen eta politikoen garrantzia azpimarratuz. 2. puntu honetan, urteetan automatizazioak izan duen bilakaera kontatzen da, Erdi Arotik hasi eta gaur egunera arte, makinaren eta langileen arteko harremana nola hasi zen kontatuz, Industria Iraultzaren egoera erantsiz.

Azkenik, 3. puntuan, politikako proposamenei helduko diegu, arauketaren garrantzia azpimarratuz, teknologia eta giza lana modu harmoniatsuan eta ekitatiboan aldi berean uztartzeko. Proposamenei 4 puntuetan, proposamen ekonomiko eta sozialak azaltzen dira, non gobernuak, enpresak eta erakundeak inplikatzeko diren. Atal honetan ikus daitezke ez nagoela ados teknologiarekiko baikorren ikuspegi batzuekin, batez ere, enpresa handien boterea defendatzen dutenak teknologiaren izaera politikoa ukatuz. Beraz, aztertutako egileek esaten dutena kontuan hartuta, eta AAK langileekin batera nola eboluzionatu duen ikusita, iradokizunak proposatzen dira lanaren helburua lortzeko: estrategiak proposatzea, AA guztiontzat onuragarria izan dadin.

1. ZENBAIT IKUSPEGI, ETORKIZUN BAT: ADIMEN ARTIFIZIALAREKIKO USTEAK

1.1. TEORIA ETA PENTSAMENDU-ESKOLA NAGUSIAK

Mark Knickrehm¹-ek *How Will AI Change Work? Here Are 5 Schools of Thought* artikuluan azaltzen dituen adimen artifizialak lan-eremuan duen eraginari buruzko ikuspuntuak², adimen artifizialak lan-esparruan zein eguneroko bizitzan izan duen indar eraldatzailearen ondorio izan dira. AArekiko ikuspuntu horiek historian zehar sortutako teoria ekonomikoekin erlazionatu dira, adimen artifizialari dagokion alde teknologikora egokituta.

1.1.1. Teknologiarekiko distopikoak

Kasu honetan, Mark Knickrehm-eren hitzetan, gizakiak eta makinak borroka darwinianoa³ izango dute, makinek irabaziko dutena (Knickrehm, 2018). Distopikoen ustez, adimen artifiziala izango da nagusi trebetasun handiko enpleguetan, eta robotak, kualifikazio txikiagoko enpleguetan. Beraz, distopia horrek langabezia-tasa oso altua ekarriko du, soldaten murrizketa eta herrialde edo kontinenteko ekonomia suntsitzailea izango da. Sarreren murrizketaren ondorioz, BPGaren portzentajea igarriko da kontsumoaren beherakada itzela. Hori konpondu ahal izateko, oinarrizko errenta unibertsala da adituek gomendatzen dutena.

1.1.2. Teknologiarekiko utopikoak

Utopia honetan, produktibitate-maila eta sarreren hazkundera egongo litzateke, Moritzen hitzetan, bizi-kalitatea hobetuz (Strube, 2024). Utopikoak gizakiak errenta unibertsala jasotzen duen bitartean jarduera esanguratsuetan jardun ahal izango dutela uste dutenak dira. Era berean, lan intelektuala giza garuna imitatzen duen adimen artifizialaren bidez egingo da, lan astuna roboten eskuetan utziz. Horrela, produktibitate maila handitu egingo da, ekoizpen maila handituz, ekonomia aurreko posizioan bezain kaltegarria izan ez dadin.

¹ Gainwell Technologies-eko presidentea da, non bezeroei teknologiaren bitartez irtenbide egokiak proposatzen dituen. <https://www.linkedin.com/in/markknickrehm/>

² Moritz Strube-k *AI and Automation Theory* artikuluan aipatzen ditu.

³ Charles Darwin, naturalistak, existentziaren aldeko borrokari buruz hitz egiten zuen.

1.1.3. Teknologiarekiko baikorrak

Bestalde, badira teknologiak gure egunerokotasuna hainbat alderditan hobetuko duela uste dutenak ere. Enpresek adimen artifizialaren erabilerari etekin handiena nola atera jakin beharko luketela uste dute, produktibitateak gora egin dezan, langilearen eta kontsumitzailearen bizi-mailak nabarmen hobetzen diren bitartean, gizakiaren adimen-koefizientea handitu eta indartsuago bihurtuz. Hala eta guztiz ere, helburu horietara heldu ahal izateko, Moritz Strube-k, hezkuntzan eta langileen postuen berrerabilpenean inbertitzearen garrantzia aipatzen du (Strube, 2024).

Dena dela, ez da aplikagarria langune guztietan; beraz, eragin negatiboa izan dezake, langabezia edo soldaten jaitsiera sortuz (Knickrehm, 2018). Horregatik, ezinbestekoa da gobernuek informatika arlo berri honetan hezkuntza eta prestakuntzan inbertitzea, egungo ikasleak etorkizunean adimen artifizialarekin lan egingo duten langileak baitira.

Hala ere, baikorren barruan, badaude enpresa handien interesak defendatzen dutenak, erregulazioa interesatzen ez zaienei, non botere-desoreka ere nabarmen agertzen da. Enpresa handi hauek lan egiten duten langileek sarritan lan-baldintza prekarioei eta laneko segurtasun ezari aurre egin behar diete. Plataforma digitalek, Uber-ek esaterako, lanaren 3. puntuan azaltzen dena, fenomeno horren adibide dira, enpresaren interesen mesederako kontrol-mekanismoak ezarri baitituzte. Lan-merkatuaren teoria neoklasikoaren arabera, lan-indarra homogeneoa da eta kasu honetan, indar nagusia enplegatzaileek dute. Ikuspegi neoklasikoaren arabera, oreka lor daiteke epe luzera, betiere langabezia txikia bada eta soldatak antzekoak badira langile guztientzat.

Noah Smith

Noah Smith ekonomialari eta idazlea da, eta bere iritzia duela 3 urte baino gehiagotik mantentzen duen blog⁴ baten bidez islatzen du, Stony Brook Unibertsitatean finantzetako irakasle laguntzaile izan eta Bloomberg Opinion-en ekonomiako zutabegile izan ondoren.

⁴ Smith, N. *Noahpinion*. <https://www.noahpinion.blog/>

Noah Smithek baikortzat du bere burua, uste baitu aurrerapen handiak izango direla teknologiaren munduan. Moritz Strube-k 5 pentsamenduei buruzko artikuluan egiten duen bezala, Smithek ere *Thoughts on Techno-Optimism* artikuluan hitz egiten du existitzen diren pentsalari baikor motei buruz. 4 baikortasun mota bereizten ditu, eta horien artean hurrengoak daude: positiboa, berritzeko asko dagoela eta teknologia horiek aurkitzea, diseinatzea eta inplementatzea hain garestia ez dela pentsatzen dutenak; arauemailea, teknologiak gure arazo asko konponduko dituela uste dutenak, mundua leku hobeto batean bihurtuz; aktiboa, teknologiak giza bizitza hobetzen jarraituko duela pentsatzen duena, betiere politika egokiak ezartzen badira; eta, azkenik, pasiboa, teknologiak aurrera egiten jarraituko duela eta giza bizitza hobetzen jarraituko duela uste dutenak, inolako murrizketarik eta mugarik jarri gabe. Smith positiboaren eta arauemailearen artean kokatzen da, baita aktiboaren artean ere, horrela liberalismoa⁵ nagusituko delakoan.

Noah Smithen ustez, teknologiak zeregin batzuk ordezkatu ditzake, baina, era berean, gizakia produktiboagoa izan daiteke beste zeregin mota batzuk eginez edo lan berriak sortuz lan-merkatuan langile berriekin. Beraz, langileak zergatik dira beldur AA bere lanak ordezkatzeko ote dituen? Smithek uste du ezezagunaren beldur direlako dela, ez baitituzte ezagutzen adimen artifizialaren onurak. Monmoutheko Unibertsitateak egindako ikerketa⁶ batean, %41ek uste dute AAk kalte gehiago eragingo dituela onurak baino.

Etorkez hurbilean, AAk gaur egun gizaki batek egiten duen lan oro egiten ikasiko du. Smithek uste du horrek ez gaituela langabezia masibora eramango; aitzitik, gizakiek lan ugari eta ondo ordaindua izango dute, eta askok orain egiten duten lan bera egiten jarraituko dute. Kasu batzuetan, AAk gizakiak baino hobeto bete dezake bere lana, baina idazle amerikarrak aitortu du garai horretako langileek egingo dituzten lanak 2024an egindakoen antzekoak izango direla. Smithek defendatzen du AA zenbait zereginetan hobea izan arren ez duela esan nahi egiteko erabiliko direnik. Azken finean, AAk zeregin asko egiteak baliotsu bihurtzen du,

⁵ Estatuak ekonomian esku ez hartzea aldeztzen duen doktrina. Euskaltzaindia. <https://www.euskaltzaindia.eus/>

⁶ Murray, P. (2023, Otsailak 15). *Artificial Intelligence Use Prompts Concerns | Monmouth University Polling Institute*. Monmouth University. https://www.monmouth.edu/polling-institute/reports/monmouthpoll_us_021523/

eta Aarentzat ekonomikoki emankorrakoak diren erabileratarako bakarrik esleitu behar da, gainerako zereginak giza langileen esku utziz.

Smithek benetako garrantzia ematen dio produktibitateari bere blogeko artikulu askotan. Horietako batean, produktibitatea indar handiz hazten ari dela nabarmentzen du, ekonomia enplegu betean dagoelako, eta enpresek gehiago inbertitzen dutelako teknologia berrietan eta horien bidez enpresen eraginkortasuna hobetzen. Produktibitatearen igoera horri esker, soldatek gora egiten dute, eta zenbait produkturen inflazioa eta prezioak jaisten dira, hala nola gasolinarena. Produktibitatearen hazkundeari dagokionez, AAri esker, produktibitate-puntuak gora egingo dutela aurreikusten da urteak igaro ahala.

Blogari amerikarrak kritikatu duenez, aurrerapen teknologiko hori gutxi batzuentzat baino ez da onuragarria, hala nola herrialde aberatsetako gobernuentzat eta enpresa handientzat.

1.1.4. Teoria marxista

Marxismoan, berrikuntza garapen sozialaren oinarria da. Kapitalismoak berrikuntza behar du gainbalioa maximizatzeko eta irabaziak sortzeko, eta, aldi berean, giza lan gutxiago eskatzen du. Horrek kontraesan bat sortzen du produktibitatearen garapenaren eta ingurune ekonomikoaren artean, eta horrek langileen pobrezia eta berrikuntzaren emaitzen banaketa desberdinerara eramaten du; produktibitatearen eszeptikoak, uste dute adimen artifizialetik datorren produktibitatearen edozein igoera ez dela nahikoa izango herrialdeko ekonomiaren onurarako, zenbait alderdik ekonomia nabarmen okertuko baitute. Hau da, nahiz eta produktibitate-maila altua izan, jaiotza-tasak gutxituz doaz⁷, diru-sarreraren aldea gizarteriaren artean gero eta handiagoa da...

Marxen ustez, gizarte komunista bat posible da soilik teknologia aurreratua garatzen bada, justizia eta berdintasuna bermatzen baditu eta pertsona guztien beharrak asetzen baditu. Horren ondorioz, produktibitatearen hazkundera ez du emaitza onak ekarriko, beste

⁷ Jaiotzak Espainian, 2013tik %24,1 jaitsi egin dira. AGENCIAS. (2024, Otsailak 21). *España registró 322.075 nacimientos en 2023, la cifra de natalidad más baja desde 1941*. RTVE.es. <https://www.rtve.es/noticias/20240221/espana-registro-322075-nacimientos-2023-cifra-natalidad-mas-baja-de-sde-1941/15979523.shtml>

faktoreen emaitza txarrekin, ez duelako ekonomiaren egoera hobetuko. Mark Knickrehmek dio, egoera honetan, aukera bakarra izango dela hazkuntzaren geldirako prestatzea.

Evgeny Morozov

Evgeny Morozov ikertzaile ezaguna da mundu osoan, teknologiaren inplikazio sozial eta politikoetan egindako ekarpenengatik. Hamar liburu baino gehiago idatzi dituen idazle hau produktibitate teknologikoarekiko eszeptizismoagatik da ezaguna, bere lanetan adimen artifizialaren soluzionismoa zalantzan jartzen baitu. Morozovek argudiatzen du aurrerapen teknologiko guztiek ez dituztela etorkizuneko edo oraingo arazoak konponduko, ez behintzat horiek erabiltzeko eta aplikatzeko oinarriak ezarriko dituen erregulazio politiko egokirik gabe.

Produktibitatearen testuinguruan, Morozovek azpimarratzen du adimen artifizialaren ezarpena, askotan, eraginkortasuna eta ekoizpena handitzeko promesarekin justifikatzen dela. *El coste de la utopía digital*⁸ artikuluan idatzi duenez, sinestarazi digute teknologia digitalek onurak eta aurrerapena ekarriko dizkigutela, promesa horiek kritikoki zalantzan jarri gabe. Morozoven arabera, uste horrek emaitzak espero zirenak ez direnerako irtenbide alternatiboak bilatzeko gaitasuna galarazi digu, konponbide teknologikoetan justifikaziorik gabeko mendekotasuna sortuz.

AAren ezarpenak lortutako emaitzei dagokienez, azterlan berriek frogatu dute produktibitatearen gaineko ondorioak ez direla homogeenak, eta nabarmen alda daitezkeela industriaren eta eskualdearen arabera. Adibidez, sektore batzuek produktibitatea handitu dezakete, eta beste batzuek, berriz, teknologia berrietara egokitzeko erronka nabarmenak izan ditzakete. Morozovek Simon Vazquezekin izandako elkarrizketa⁹ batean adierazi duenez, industriaren eta garapenaren arteko harremana ez da lineala. Batzuetan, industrializazio handiagoak garapen handiagoa ekar dezake, baina beste batzuetan garapen falta ekar dezake, teknologia horiek nola implementatzen eta erregulatzen direnaren arabera.

⁸ Morozov, E. (2022, Apirilak 19). *El coste de la utopía digital*. CCCB LAB.

<https://lab.cccb.org/es/el-coste-de-la-utopia-digital/>

⁹ *Evgeny Morozov: We Need a Nonmarket Modernist Project*. (2023, Abenduak 6)

<https://jacobin.com/2023/12/evgeny-morozov-interview-technology-sovereignty-global-south-development-cybersyn>

Gainera, Morozovek nabarmendu du adimen artifizialaren eta produktibitatearen arteko harremana ez dela beti positiboa. Kasu askotan, automatizazioak eta ingurumen-eraginaren erabilerak lanpostuak ezabatzea eragin dezakete, eta horrek eragin negatiboa izan dezake gutxien kalifikatutako langileengan, eta desberdintasun ekonomikoak areagotu egin daitezke. AAren robotak eta teknologiak hartzeak ondorio kaltegarriak izan ditzake enpleguan eta soldatetan zenbait arlotan, eta horrek desberdintasun horiei helduko dieten politika publikoak sortzeko beharra nabarmentzen du. Morozovek langileak babestuko dituen eta teknologiaren onurak ekitatiboki banatuko direla bermatuko duen ikuspegi arautzaile baten alde egiten du.

Click Here to Save Everything liburuan, Morozovek teknologia hobetzeko indarra izan daitekeela idazten du, betiere zerbait iraultzailea izango denaren ideia alde batera utzi eta ematen diogun erabileraz jabetzen bagara. Argudiatzen du AA onartzeak langileen gaineko zaintza eta kontrol handiagoa ekar dezakeela, desberdintasunak areagotuz eta lan-autonomia murriztuz. Gaur egun, enpresa handiak ari dira gure datuak eskuratzen, eta idazle bielorrusiarrek kritikatu egin du transakzio hori, irabazirik ez dutelako partekatzen biztanleriarekin oro har. Korporazio handiek datuak bereganatzeak kezka handiak sortzen ditu pribatutasunari eta teknologiak sortutako onurak eskuratzeko ekitateari buruz.

Azkenik, funtsezkoa da kontuan hartzea adimen artifiziala lan-ingurunean ezartzearekin batera ikuspegi etiko eta ekitatiboa eman behar dela. Morozovek proposatzen du langileak inplikatzeko garapen teknologikoari buruzko erabakietan, haien ahotsak entzungo direla eta haien interesak babestuko direla ziurtatuz. Argudiatzen du funtsezkoa dela historikoki gutxietsitako komunitateak sartzea teknologia horien garapenean eta erregulazioan, AAren onurak modu bidezkoan banatuko direla ziurtatzeko. Gainera, Morozovek subiranotasun¹⁰ digitalarekiko konpromisoaren garrantzia azpimarratzen du, gizarteko sektore batzuk onura teknologikoetatik kanpo utz ditzaketen oztopo eta kostu handiak saihestuz.

Evgeny Morozovek teknologiak gure gizartean duen zereginari buruzko hausnarketa kritikoa egitera eta teknologia ezartzeak dakartzan inplikazio sozial eta politikoak kontu handiz

¹⁰ Inoren mendeko ez denaren nolakotasuna edo egoera.

aztertzeraz gonbidatzen gaitu. Produktibitate teknologikoarekiko eszeptizismoak gogorarazten digu, aurrerapen teknologikoak benetan onuragarriak izan daitezen, erregulazio egokiarekin eta justizia sozial eta ekonomikoarekiko konpromisoarekin batera egon behar dutela. Orduan bakarrik bermatu ahal izango dugu teknologiak gizarte osoaren alde lan egitea, eta ez soilik pribilegiatu gutxi batzuen alde.

1.1.5. Ongizatearen ekonomiaren teoria

Ongizatearen ekonomia ideia honetan oinarritzen da: ekonomiak pertsonentzat funtzionatu behar du, guztiontzako bizitza eta oparotasuna bermatzeko diseinatutako lege, erregulazio eta pizgarriekin. Langileek erabakiak hartzen parte hartzen dute, onurak modu justuan banatzen dira, aukera-berdintasuna dago guztientzat eta enpresek gizartearen ongizatearekin konpromisoa dute. Hau da baikor errealistek defendatzen duena; ondorioz, Knickrehmek proposatzen duena produktibitatea, enplegua eta soldaten arteko erlazioan ikertzea da, lanpostuak ez galtzeko eta soldaten desberdintasun alde gero eta txikiagoa izan dadin (Knickrehm, 2018).

Adimen artifizialaren erabilera produktibitate-tasa handituko dela uste dute baikor errealistek, enplegu berriak sortuz. Hala ere, horrek desberdintasunak sortuko ditu gizartean, kalifikatutako lanen artean. Langabezi-tasaren handitzea ere emango da, biztanleen arteko desberdintasun ekonomiko eta sozialak sortuz. Beraz, baikor errealistek ongizatearen ekonomia jarraitzen dute egoera hobetu dadin.

Daron Acemoglu

Adimen artifizialak ekonomian eta enpleguan duen eraginaren azterketan ekonomialari nabarmenetakoa da Daron Acemoglu. Massachusettseko Institutu Teknologikoko¹¹ (MIT) irakasle gisa, ekarpen esanguratsuak egin ditu eta hainbat akademia eta elkarte ospetsuetako kide da. Bere lanak ekonomia politikoa, garapen ekonomikoa, hazkunde ekonomikoa, aldaketa teknologikoa, desberdintasuna eta lan-ekonomia bezalako gaiak biltzen ditu. Interes

¹¹ Massachusetts Institute of Technology <https://www.mit.edu/>

aniztasun horri esker, adimen artifizialaren erronkei eta aukerei buruzko ikuspegi osoa eta ondo oinarritua eskaintzen du (MIT, 2023).

Acemogluk maiz aztertzen ditu automatizazioarekin eta adimen artifizialarekin lotutako gai konplexuak eta horiek enpleguan eta ekonomian duten eragina. Bere ikerketen arabera, automatizazioak lanpostuak suntsitu eta sor ditzake, enpresek eta gobernuek hartutako erabakien arabera. Algoritmoak lehen giza arreta eskatzen zuten zereginak beren gain hartzen ari diren arren, hori ez da beti positiboa lekualdatutako langileentzat, haientzat ondo ordaindutako zeregin berriak garatzen ez badira behintzat. Ikuspegi egokirik gabe, teknologiak dauden arrakalak zabal ditzake, itxi beharrean.

Historikoki, Industria Iraultzatik, automatizazioak eragin mistoak izan ditu ekonomian eta enpleguan. Acemogluk erreforma politiko esanguratsuen garrantzia azpimarratu du, hala nola sindikatuek legezatu eta aurrerapen teknologikoa demokratizatu zutenena. Erreforma horiek funtsezkoak dira gaur egun AAren eta automatizazioaren onurak zabal banatuko direla bermatzeko. Erreforma horiek gabe, aurrerapen teknologikoen neurritz kanpoko onura ekar liezaioke gutxiengo bati, beste asko egoera ahulean utziz.

Acemogluk ohartarazi du AAren aroan automatizazio gehiegi izatearen arriskuez; izan ere, langile askok beren lanpostuak gal ditzakete, eta beren lanpostuei eusten dietenek zaintza-eta kontrol-baldintza zorrotzagoak izan ditzakete. Langileak babesteko datu eta lan-arau zorrotzenak bilduko dituen erregulazio egoki baten beharra proposatzen du. Erregulazioak malgua izan behar du berrikuntza teknologiko azkarretara egokitzeko, baina sendoa langileen babesa bermatzeko.

Gainera, Acemogluk iradokitzen du beharrezkoa dela berrikuntza teknologikoaren norabidea aldatzea, gizakientzat aukera eta zeregin berriak sortzeko. Giza lana ordezkatu ez duen AA baten alde egiten du, langileei zeregin esanguratsuagoak eta hain errepikakorrek ez direnak egiteko aukera emanez.

Halaber, etorkizuneko erronketarako lan-indarra prestatuko duen hezkuntza-ikuspegiaren beharra nabarmentzen du. Hezkuntza-sistemek eboluzionatu egin behar dute langileak trebetasun tekniko, pentsamendu kritiko, sormenez eta moldagarritasunez hornitzeko, ezinbestekoak baitira etengabe aldatzen ari den lan-merkatuan.

Azkenik, Acemogluk nazioarteko lankidetzak AAre erregulazioan eta automatizazioan duen garrantzia azpimarratu du. Koordinazio globala funtsezkoa da erronka komunei aurre egiteko eta lan-arauei eta gizarte-babesari dagokienez sakonerako lasterketa saihesteko. Herrialdeen arteko lankidetzak estandar globalak ezartzen lagun dezake, AAre onurak zuzen banatuko direla eta mundu osoko langileentzako arriskuak minimizatuko direla bermatzeko.

2. ETORKIZUNA MOLDATZEN DUEN IRAGANA

2.1. ADIMEN ARTIFIZIALAREN TESTUINGURU HISTORIKOA

Adituek teknologiar buruz dituzten ikuspuntuei buruz hitz egin dugu, baina, zer da adimen artifiziala eta nondik dator? John McCarthy¹²ren arabera, Adimen Artifiziala makina adimendunak fabrikatzeko zientzia eta ingeniari-tza da, bereziki programa informatiko adimendunak.

Max Roseren *The brief history of artificial intelligence: the world has changed fast - what might be next?* artikuluan nabarmentzen da adimen artifizialak azkar egin duela aurrera, eta haren eragina areagotu egin dela hainbat arlotan. Roserek AAREN dualtasuna nabarmendu du, helburu oso positiboetarako zein helburu kaltegarrietarako erabil baitaiteke, eta goraka doan teknologia hori ulertzearen eta erregulatzearen garrantzia azpimarratu du, gure bizitzetan eta gizarteetan gero eta eragin handiagoa duelako. Marxistak diotenez, berdintasuna beharrezkoa da teknologia aurreratua garatzeko.

Roser-ek dio AAK funtsean aldatu egin duela ikusten duguna, dakiguna eta egiten duguna. Ezer gutxi da munduaren etorkizunerako eta gure bizitzetarako bezain garrantzitsua istorio honek nola jarraitzen duen eta etorkizunetik zer espero dezakegun jakitea baino (Roser, 2022).


Adimen artifiziala jada ez da etorkizuneko teknologia bat; hemen dago, eta orain errealitatea dena zientzia fikzioa izango litzateke duela gutxi. Teknologia horrek guztioi eragiten digu dagoeneko, eta askotariko aplikazio hedatuak ditu. Duela bi hamarkada, mundua oso desberdina zen. Zer izango da gai etorkizunean AA?

¹² Informatikaria, zeinek 1971n Turing saria irabazi zuen Adimen Artifizialaren arloan egindako ekarpenengatik. https://es.wikipedia.org/wiki/John_McCarthy

2.1.1. Aaren lehen urratsak eta azken hamarkadetako aurrerapenak

Adimen artifizialak hain garapen azkarra izan du, bere historia laburtzat har daitekeela; teknologia informatiko berrienak aspaldikoa dirudi gaur egun. 1940ko hamarkadan sortu zenetik, konputagailuek hain azkar eboluzionatu dute eta gure eguneroko bizitzan modu horretan integratu dira, teknologia hau zein berria den ahaztea erraza dela. 1. grafikoan hauteman daiteke nolako gorakada izan duen Aaren asmakuntzak azken 8 hamarkadetan.

1. grafikoa: Azken 8 hamarkadetako adimen artifizialaren igoera




Iturria: Roser (2022). Our World In Data.

Hasieratik, zientzialari informatiko batzuk gizakiak bezain adimentsuak diren makinak sortzen saiatu dira, adimen artifiziala sortuz, hauei etekin handiena ateraz, teknologiarekiko baikorrak defendatzen duten moduan. Lehen sistema nabarmena Theseus izan zen 1950ean, Claude Shannonek sortua. Sistema hori urrutitik kontrolatutako sagu bat zen, labirinto baten irteera eta ibilbidea gogoratzeko kapaz zena. Aurrerapen horrek garai baten hasiera markatu zuen, non makinak lehen gizakienak bakarrik ziren lanak egiten hasi zirelako. Theseusek labirintoan bere bidea ikasteko eta gogoratzeko zuen gaitasuna makinek giza kognizioaren zenbait alderdi errepikatzeke zuten ahalmenaren testigantza goiztiarra izan zen.

Adimen artifizialaren gaitasunak nabarmen aurreratu dira lehen egun horietatik, 2. irudian ikus daitekeen moduan. 2010eko hamarkadan, AlexNet, ikaskuntza-sistema sakona, objektuen irudiak zehaztasun handiz ezagutzeko gai izan zen. Mugarri garrantzitsua izan zen hori, erakutsi baitzuen makinek gizakiak gaindi zitzaketela ikusmena ezagutzeko berariazko zereginetan. 2020ko hamarkadaren hasieran, AAK aurrera egin zuen hizkuntza sortzeko eta gizaki baten antzeko gaitasunak zituzten irudiak ezagutzeko. AAKren garapen-abiadura handitu egin da denborarekin. Lehen sistemek, hala nola idazkera eskuz edo ahotsez ezagutzeak, hamarkada bat baino gehiago behar zuten giza errendimenduari hurbiltzeko, baina azken garapenek gizakiak baino sistema hobek sortu dituzte urte gutxi batzuetan.

2. grafikoa: Giza errendimenduaren ahaide diren hainbat gaitasuni buruzko AA sistemen proben puntuazioak



Iturria: Roser (2022). Our World In Data.

2.1.2. Jarduera eta aplikazio modernoak AAren eskutik

Duela hamarkada eskas bat, makina bakar batek ere ezin zuen modu fidagarrian hizkuntza edo irudiak giza mailan ezagutu. Hala ere, gaur egun, AAren sistemak nabarmen hobetu dira eta proba espezifikoetan gizakiak gainditzen ari dira. Garrantzitsua da gogoratzea lorpen horiek nabarmenak diren arren, proba espezifikoetatik kanpo, AAren ereduak huts egin dezaketela modu harrigarrian, eta ez dutela giza gaitasunen errendimendu konparagarririk lortzen testuinguru guztietan. AA horien jarduera mistoa da: kasu batzuetan, mundu errealean, sistema horiek gizakiek baino askoz okerrago funtzionatzen dute. Bestalde, AAren inplementazio batzuk oso merkeak dira, eta gure telefonoetan eskuragarri daude, argazkiak kategorizatuz eta diktaduak transkribatuz, Noah Smithek sinesten duen moduan, gure produktibitatea eta bizi-maila hobetuz.

AA modernoak mundu errealeko askotariko aplikazioetan ere erabiltzen dira. Adibidez, medikuntzan, AAren sistemek gaixotasunak diagnostikatzen laguntzen dute irudi medikoen analisiaren bidez. Finantza-industrian, AA iruzurrak detektatzeko eta burtsa-eragiketarako egiteko erabiltzen da. Zerbitzuen sektorean, AAk bultzatutako chatbotek bezeroen kontsultak maneiatzen dituzte eta bezeroarentzako zerbitzuaren eraginkortasuna hobetzen dute. Aplikazio horiek erakusten dute AA berariazko zereginetan hobetzeaz gain, eguneroko bizitzako hainbat industria eta alderditan duen eragina ere handitzen ari dela.

Adimen artifizialeko sistemek ere hobera egin dute irudiak sortzean. Azken urteotan, sistema horien gaitasuna are harrigarriagoa bihurtu da. Lehen sistemak aurpegiaren irudiak sortzean oinarritzen ziren bitartean, eredu berrienek ia edozein testu-eskaeratik abiatuta irudiak sortzeko ditzakete. Sistema horiek hain dira ahaltuak, askotan erabiltzaileari ez baitiote uzten giza aurpegiaren irudiak sortzen gehiegikeriak saihesteko.

Hizkuntza sortzen duten teknologiak modu askotara sartu dira gure eguneroko bizitzan azken urteotan. Mezu elektronikoak automatikoki osatzen dira, testu asko itzultzen dira online, bideoak automatikoki transkribatzen dira, ikasleek hizkuntza-ereduak erabiltzen dituzte beren zereginetarako, txostenak automatikoki sortzen dira eta hedabideek AAk sortutako kazetaritza argitaratzen dute. Nahiz eta aurrerapen horiek egon, adimen artifizialeko

sistemak oraindik ez dira gai testu luze eta koherenteak sortzeko. Etorkizunak esango du aurrerapen horiek jarraituko duten edo egunen batean AA batek idatzitako eleberri supersaldu bat irakurriko dugun (Roser, 2022).

Gainera, hizkuntza naturalaren sorreran izandako aurrerapenei esker, adimen artifiziala elkarrizketa naturalagoetan eta gizakiekiko koherenteagoetan parte hartu ahal izan dute. Siri, Alexa eta Google Assistant bezalako laguntzaile birtualak AA eguneroko bizitzan nola integratzen ari den erakusten duten adibideak dira; esate baterako, erabiltzaileei ordutegien kudeaketa, informazioaren bilaketa eta etxean gailu adimendunen kontrola bezalako zereginekin lagunduz.

2.1.3. Etengabeko aurrerapena aro digital berri honetan

Ikasketa automatikoaren mende dauden AA sistema guztiak entrenatu egin behar dira, eta, sistema horietan, entrenamenduaren kalkulua haien gaitasunak bultzatzen dituzten funtsezko hiru faktoreetako bat da. Beste bi faktoreak algoritmoak eta entrenamendurako erabilitako sarrera-datuak dira. Entrenamendu konputazioa handitu ahala, adimen artifizialeko sistemak boteretsuagoak bihurtu ziren. Lehen sei hamarkadetan, entrenamenduaren kalkulua handitu egin zen Mooreren Legea¹³ren arabera, eta 20 hilabetean behin bikoizten zen, gutxi gorabehera. 2010az geroztik, hazkunde esponenzial hori bizkortu egin da, eta sei hilean behin bikoiztu egin da hazkunde-tasa, harrigarriro azkarra.

Konputazio-gaitasunaren hazkunde esponenzialak eta datuen eskuragarritasunak aurrerapen esanguratsuak ahalbidetu dituzte hizkuntza naturalaren prozesamenduan eta irudien ezagutzan. Aurrerapen horiek berrikuntza-olde berri bat bultzatzen ari dira AAren munduan, eta industria osoak eraldatzen eta aukera ekonomiko berriak sortzen ari dira, lan-merkatu neoklasikoa irudikatzen duen moduan. Hala ere, erronka etiko eta sozialak ere

¹³ Zirkuitu integratu trinko berrien transistore kopurua bi urtero bikoiztuz doala dioen aurreikuspen edo behaketa da. Iragarpenaren egilea Gordon Moore estatubatuar ingeniari eta enpresaburua da, Fairchild Semiconductor eta Intel enpresen sortzaileetako bat. https://eu.wikipedia.org/wiki/Mooreren_legea

planteatzen dituzte, eta horiei heldu behar zaie; hori da ongizatearen ekonomiaren helburu nagusia.

Adimen artifizialak izugarri aldatu du gure mundua, baina oraindik historia honen lehen etapetan gaude. Oinarrizko joerak azkartu egin dira: adimen artifizialeko teknologian egindako inbertsioak azkar handitu dira eta entrenamenduaren kalkulua bikoizteko denbora sei hilabetera murriztu da. Berrikuntza teknologiko handi guztiek ondorio positiboak eta negatiboak dakartzate. AAREN garrantzia dela eta, denok izan beharko genuke teknologia hori norantz doan jakiteko eta gure mundua nola aldatzen ari den ulertzeko aukera.

AAk eboluzionatzen jarraitzen duen heinean, funtsezkoa da gizarte osoak parte hartzea teknologia hori nola garatu eta erabili behar den eztabaidatzen, ongizatearen ekonomia babesten duen moduan. Gaur hartuko ditugun erabakiek eragin sakona izango dute adimen artifizialaren etorkizunean eta bizi garen munduan. Ingurumen-eraginaren ulerkuntza eta erregulazio egokia funtsezkoak izango dira haren onurak zuzen banatzen direla eta arrisku potentzialak minimizatzen direla ziurtatzeko.

2.2. AUTOMATIZAZIOAREN BILAKAERA

Gizadiaren printzipioetatik, aurrerapen teknologikoak historiaren ibilbidea markatu du, gure bizitzak etengabe eraldatuz. Erdi Arotik aro garaikideraino, aurrerapen teknologiko bakoitzak aztarna ezabaezina utzi du lan egiteko eta bizitzeko moduan.

Aurrerapen teknologikoen eta langileen arteko harremana etengabeko bilakaera eta eztabaida izan duen gaia izan da, gizarte osoak moldatuz eta denboran zehar laneko rola birdefinituz. Erdi Arotik gaur egungo aro digitalera, aldaketa teknologikoek baikortasuna eta kezka eragin dute lanaren etorkizunari eta langileen ongizateari buruz, langabezi teknologikoaren antzerako ondorioak uzten joan direlako. Langabezi teknologikoa, automatizazioaren eta aurrerapen teknologikoen ondorioz lanpostuak galtzeari egiten dio erreferentzia, zeinek enplegu tradizionalak murrizten duen.

George Santayanak hausnartu zuen bezala, "Iragana gogoratu ezin dutenak errepikatzen kondenatuta daude"¹⁴, gure ibilbide historikoan ikasitako lezioei buruz hausnartzera gonbidatzen gaituelarik, eta etorkizunera begira zuhur aplikatzera. Ibilbide historikoa behatu ahal izateko, atal hau, Daron Acemoglu Simon Johnsonekin idatzitako *Power and Progress: Our Thousand-Year Struggle Over Technology and Prosperity* liburuko zenbait kapitulutan oinarritzen da.

2.2.1. Eten teknologikoa Erdi Aroan

Erdi Aroan, Europan, aurrerapen teknologiko ugari izan ziren, eta horrek produktibitate ekonomikoa areagotu zuen. Aurrerapen horien artean, honako hauek zeuden: laboreen txandaketa hobetzea, lekadunak gehiago erabiltzea eta golde eta garraiorako animaliak erabiltzea. Aurrerapen horiek bizi arren, lurra lantzen zutenen bizi-baldintzek gogorrak izaten jarraitzen zuten, eta ez zuten garapen teknologiko eta ekonomikotik onurarik atera (Acemoglu eta Johnson, 2023, 110.orr.).

Garaiko berrikuntza garrantzitsuenetako bat errota izan zen, produktibitatea nabarmen handitzea ahalbidetu zuena. 5 edo 10 langilek lan egiten zuten errota txiki batek bi eta hiru zaldi arteko indarra sor dezakeen, hau da, hogeita hamar eta hirurogei pertsona arteko lana. Produktibitate-igoera horren ondorioz, pertsona bakoitzeko %15a handitu zen 1100 eta 1300.urteen artean. Hala ere, onura ekonomiko horiek ez zuten herritarren bizi-kalitatea hobetu, baizik eta elite txiki bati bakarrik egin zioten mesede (Acemoglu eta Johnson, 2023, 111.orr.).

Nekazari gehienek hautematen zuten nekazaritzako teknologiak bere pobrezia larriagotu baino ez zuela egin. Oso baldintza gogorretan jarraitzen zuten lanean, eta ozta-ozta lortzen zuten bizirik irauteko behar zutena, etengabeko esplotazioari aurre eginez (Acemoglu eta Johnson, 2023, 112.orr.). Erdi Aroko gizartearen egitura estamentalak zen, gobernariak, erlijiosoak eta langileak osatua. Nekazariak baldintza horiek jasaten zituzten nobleziak

¹⁴ Poeta eta filosofo espainiarrak esandako esaldia, Auschwitz-eko kontzentrazio-esparruan idatzita dagoena. Springsteen, B. (2023, Azaroak 7). *George Santayana, el filósofo casi desconocido autor de la frase: "Aquellos que no pueden recordar el pasado están condenados a repetirlo"*. EL PAÍS.

indarkeriaren erabilera kontrolatzen zuelako. 1381ean Inglaterran nekazarien matxinadak, zergak murriztea, morrontzaren abolizioa eta auzitegien erreforma bilatzen zituenak, porrot egin zuen. Erregeak, hasiera batean, matxinatuen eskariak onartu bazituen ere, gero ez zituen promesak bete, eta nekazari asko jazarri eta exekutatu zituen (Acemoglu eta Johnson, 2023, 115-116.orr.).

Paradoxa bat dago: teknologia berriek are gehiago pobretu zituzten biztanle gehienak, eliteek teknologia horiek erabiltzeari buruz zuten kontrola dela eta. Erdi Aroko Europan ez zegoen lan-merkatu lehiakorrik; langileen soldadak eta betebeharrak jaun feudalen borondatearen arabekoak ziren. Produktibitatea handitu ahala, nekazariak are gehiago ustiatzen ziren, eta denbora gutxiago izaten zuten beren laboreak zaintzeko, eta horrek benetako diru-sarrerak eta etxeko kontsumoa murrizten zituen (Acemoglu eta Johnson, 2023, 117-118.orr.).

Erdi Aroko ekonomiak aurrerapen teknologiko eta berrantolaketa garrantzitsuak izan zituen, baina hauek ere nekazarien miseria areagotu zuten. Sistema feudalak ziurtatzen zuen produktibitatearen edozein hazkundek mesede egingo ziela nobleziari eta erlijio-eliteari, eta nekazariak, berriz, gero eta betebehar garestiagoak zituzten. Eliteak teknologiaren eta ekonomiaren egiturari buruz hartutako erabakiek bere boterea iraunaraztea eta biztanleria orokorraren oparotasuna zailtzea bilatzen zuten. Erlijio-pertsuasioak eta hertsapen judizialak indartu egiten zuten sistema zapaltzaile hori (Acemoglu eta Johnson, 2023, 121.orr.).

Erdi Aroko nekazarien pobrezia ezin da ulertu jasaten ari zen hertsapena eta aurrerabidearen onuradun nor zen zehazten zuten botere sozial eta politikoa aitortu gabe. Industria Iraultzaren aurretik, teknologia eta produktibitatea ez zeuden geldituta, baina biztanle gehienek ez zuten nabarmen hobetu. Konstituzio-testuinguruak eta teknologia-motak eragina izan zuten aurrerapen teknologikoen onurak nork jasotzen zituen jakiteko orduan. Garai historiko askotan, elite boteretsu batek zuzendu zuen teknologia, eta produktibitatea handitzeak ez zuen ekarri hobekuntza nabarmenik gehientzat (Acemoglu eta Johnson, 2023, 122.orr.).

Nekazaritzaren modernizazio teknologikoa sarritan erabili zen txiroak landa-eremuetatik desjabetzeko aitzakiatzat. Azterlan batzuek produktibitatean hazkunde esanguratsuak

iradokitzen dituzten arren, argi dago desberdintasuna areagotu egin zela eta nekazariak kaltetu egin zirela. Landa-eremuko pobrezia areagotzea ekarri zuten erabakiak aurrerapen teknologikoaren eta interes nazionalaren izenean ezarri ziren (Acemoglu eta Johnson, 2023, 138.orr).

Historiak erakusten du ekoizpenaren antolaketa teknologikoa botere-postuetatik urrun dauden pertsoneri presio handiagoa egiteko tresna izan daitekeela. Hau Estatu Batuetako kotoi industrian ere ikusi zen, non desmuntatzailea bezalako berrikuntzek mesede handia egin zieten lurjabe eta merkatariei, eta langileek, bereziki esklabo beltzek, esplotazio handiagoa jasan zuten. Produktibitatearen igoerak ez zituen langile horien soldatak eta bizi-baldintzak hobetu (Acemoglu eta Johnson, 2023, 139-141.orr).

2.2.2. Lan-eraldaketa Industria Iraultzan

Industria Iraultzaren lehen faseetan, aurrerapen teknologikoak ez zuen soldata-hobekuntzarik ekarri langile gehienentzat. Teknologia erritmo bizkorrean aurrera egin ahala, benetako diru-sarrerak gelditu egin ziren eta lan-baldintzak okertu egin ziren. Lanaldia asko luzatu zen eta orduko soldata murriztu egin zen, langile britainiarrengandik lan gehiago ateratzen zen bitartean (Acemoglu eta Johnson, 2023, 189.orr).

1750etik aurrera, produktibitatea azkar handitzen hasi zen, batez ere ehungintzaren sektorean. Lehen irute-makina mekanikoen laurhun aldiz biderkatu zuten orduko ekoizpena. Ingalaterran, 1790ean, iruteko mando batek 1000 orduko lana behar zuen oihal kopuru jakin bat ekoizteko; 1825ean, berriz, denbora hori 135 ordura murriztu zuen makineria hobetuak. Hala ere, aurrerapen horiek ez ziren benetako diru-sarreraren hazkunde proportzionalean islatu (Acemoglu eta Johnson, 2023, 190.orr).

XIX. mendearen hasieran, ehungailuetako langile kualifikatuak lekuz aldatu ziren automatizazioaren ondorioz, eta, kualifikatu gabeko eta okerrago ordaindutako enpleguak bilatu behar izan zituzten. Jan de Vriesen arabera, Industria Iraultza trebea ere izan zen, non langile britainiarrek lanaldi luzeagoak eta baldintza gogorragoak izan zituzten. XVIII. mendearen erdialdetik hurrengo hiru hamarkadetara bitartean, lanaldia urteko 2.760 ordutik

urteko 3.366 ordura igo zen, hau da, asteko 65 ordu inguru, eta horrek ez zuen esan nahi diru-sarrerak handitu zirenik (Acemoglu eta Johnson, 2023, 191.orr.).

Luditen egoera, mekanizazioaren aurka zeudenak, teknologiaren eta enpleguaren arteko gatazkaren adibide da. 1730eko hamarkadaz geroztik, asmakuntza batzuek iruteko eta ehuntzeko prozesua mekanizatu zuten, artisau kualifikatuen eskaria murriztuz eta lana kualifikatu gabeko eskulana behar zuten lantegi handietara eramanez (Acemoglu eta Johnson, 2023, 195.orr). 1811 eta 1812 artean, luditek makina hauek eraso zituzten, hauen mantenurako mehatxu zuzena ikusiz. Gobernuak errepresio zorrotzekin erantzun zuen, heriotza-zigorrak barne, teknologiaren kontrolaren eta erabileraren aldeko borroka agerian utziz (Acemoglu eta Johnson, 2023, 196.orr).

Automatizazioak ez zuen handitu langileek ekoizpenari egiten zioten ekarpena, eta ez zuen langile gehiago kontratatzeko beharrik sortu. Horren ondorioz, errentaren banaketa desorekatua izan zen, soldata geldoekin eta etekinak makinaren jabeengan kontzentratuta. (Acemoglu eta Johnson, 2023, 197.orr) Luditek ulertu zuten teknologia berriak ezartzea erabaki kontzientea zela, eta gizarte-talde batzuei mesede egiten ziela, beste batzuen kaltetan. Ehungintzaren produktibitatearen hazkundeak lanpostu berriak sortu zituen makinaren eta erreminten fabrikazioan, besteak beste, baina ez zen nahikoa izan hamarkadetan zehar soldatak igotzeko. Lekuz aldatutako ehule kualifikatuek zailtasun handiak izan zituzten lanpostu alderagarriak aurkitzeko (Acemoglu eta Johnson, 2023, 198.orr).

XIX. mendearen bigarren erdian egoera hobetzen hasi zen. Soldatak etengabe igotzen hasi ziren 1840 eta 1900 artean, eta langile bakoitzeko produkzioa %90 igo zen. Horrek familiaren diru-sarrerak eta kualifikaziorik gabeko langileen bizi-baldintzak hobetu zituen. Lan-baldintzak ere hobetu egin ziren, eta gehienentzat bederatzi orduko lanaldiak izan ziren (Acemoglu eta Johnson, 2023, 205.orr).

Aurrerapen hori ez zen automatikoa izan, eztabaidatutako erreforma politiko eta ekonomikoen emaitza baizik. Industria Iraultzaren lehenengo berrikuntza teknologikoak ehungintzako lanaren automatizazioan zentratu ziren bitartean, langile kualifikatuak

lekualdatuz, XIX. mendearen bigarren erdialdean aldaketa bat ikusi zen, lan-aukera berriak sortzen zituzten teknologietarantz. Trenbideek, adibidez, garraioaren produktibitatea handitzeaz gain, enplegu ugari sortu zituzten hainbat sektoretan (Acemoglu eta Johnson, 2023, 206.orr).

Metalurgiaren aurrerapenak, burdina eta altzairurako prozesu berriekin, eta komunikazioetako berrikuntzek ere, telegrafoa eta telefonoa kasu, lanpostu asko sortu zituzten. Teknologia horiek, ehungintza-fabriken automatizazioak ez bezala, eragin positiboagoa izan zuten eskulanean, zeregin berriak sortu zituztelako eta hainbat sektoretan lan-eskaria handitu zutelako (Acemoglu eta Johnson, 2023, 208.orr).

Lan-baldintzak hobetu eta soldatak igo egin ziren, hein handi batean, langileen antolamenduari eta negoziazio kolektiboari esker. Industriak hazi ahala, enpresak eskulanagatik lehiatzen zuten, eta horrek negoziazio-ahalmen handiagoa eman zien langileei. 1871n, erakunde sindikalak legeztatzeak soldata eta lan-baldintza hobek negoziatzeko aukera eman zien langileei (Acemoglu eta Johnson, 2023, 213.orr).

